



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren 2014ko uztailaren 22ko aginduaren (2014ko uztailaren 23ko 139. zk.ko EHAA) kontrako administrazioarekiko auzi-errekurtsoari buruzko informazio-oharra.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren 2014ko uztailaren 22ko aginduaren (2014ko uztailaren 23ko 139. zk.ko EHAAn argitara emandakoa), 2014-2015eko ikasturtean unibertsitate- eta goi mailako beste ikasketa batzuk egiteko bekak, mugitzeko zailtasun bereziak dituzten ikasleen garraio-gastuak ordaintzera bideratutako diru-laguntzak eta errendimendu altuko unibertsitate-ikasleei ezagutza eta saria emateko bikaintasun akademikoko bekak deitzen dituenaren, kontrako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri du Estatuko Administrazioak.

Errekurtso horri buruzko administrazio-espedita (682/2014 zk.ko ohiko prozedura) bidaltzeko errekerimendua egin dio Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak Eusko Jaurlaritzari. Hori dela-eta, deialdi honetan parte hartzeko interesa dutenak deitu behar ditu, derrigorrean, Eusko Jaurlaritzak, horrela nahi izanez gero haien interesak defenditzeko prozedura honetan demandatu gisa agertu ahal izateko; horretarako, *Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Araubide Juridikoaren eta Zerbitzuen zuzendariaren 2015eko urtarrilaren 7ko ebazpena, administrazio-espedita bidaltzeari eta prozeduran interesatuta dauden pertsonak deitzeari buruzkoa*, eman da 2015eko urtarrilaren 22ko, osteguna, EHAAn argitara.

Prozeduran agertzeari eta agindu honen arabera aurkeztutako eskaerak tramitatzeari buruz sor daitezkeen zalantzei dagokienez, puntu hauek zehaztu behar dira:

1. Eusko Jaurlaritzako zerbitzu juridikoen beren gain hartzen dute deialdi-aginduaren legezketasuna defenditzearen ardura.
2. Edonola ere, errekurritutako deialdian interesatuta dagoen edozein pertsona ager daiteke errekurtsoan; prokuradore bat izango da haren ordezkaria eta abokatuaren laguntza izango du, urtarrilaren 10eko 1/1996 legeak, doako laguntza juridikoenak, xedatutakoaren arabera doako laguntza juridikoa jasotzeko eskubidea ezagutzen zaion kasuetan izan ezik; laguntza horrek zenbait kostu ekarriko ditu.

Agertzeko epea bederatzi lanegunekoa da, aipatutako ebazpena argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, eta, horregatik, datorren 2015eko otsailaren 4a, asteazkena, izango da azken eguna.

Deialdi-aginduaren legezketasuna defendituko dute Eusko Jaurlaritzako zerbitzu juridikoen eta, horregatik, ez da derrigorrezkoa prozeduran norbera agertzea, norberak hartu beharreko erabakia den arren. Prozeduran agertzeak abokatuaren eta prokuradorearen laguntzarekin joan behar izatea eta, kasu askotan, zenbait kostu norberaren gain hartzea dakartza.

3. Errekurritutako aginduaren ezaugarriak- unibertsitate-beken deialdia da- , kontuan hartuta, eskaerak 2014ko uztailaren 22ko aginduan zehaztutako terminoetan tramitatzeko jarraituko du Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak